

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Bizi-itxaropena Europan




El País

BIZI-ITXAROPENA zenbaki bat baino ez da eta herrialde bateko biztanleek heriotzaren uanean duten batez beste-ko adina adierazten du. Europan egindako neurketen arabera, 2010ean Suediak zuen bizi-itxaropen handiena (79,6 urte) eta Lituaniak txikiena (68). Gizonek eta emakumeek bizi-itxaropen desberdina izaten dute; Europako emakumeen artean Frantziako eta Espainiako estatu-estatuetako emakumeak dira bizi-itxaropen handiena dutenak:

85,3 urte. Bulgariako emakumeek dute txikiena: 77,4 urte.

2005. urtean Europako Batzordeak beste adierazle bat jarri zuen abian: ezgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (EBI), hau da, bizi-kalitatea neurtzen duen indizea; pertsona bat urte luzez bizi daiteke, baina askotan, azken



Bizi-itxaropena munduan.

urteetan ezgaitua egoten da, eta horrek kostu handiak eragiten dizkio gizarteari. Indize berriaren arabera oso garbi azaltzen dira Europako herrialdeen artean bizi-kalitatearen alorrean dauden desberdintasunak: 2010ean Suedian EBI 71,7 urtekoa zen, eta Eslovakian, aldiz, 52,3koa.

EBIk garrantzi handia izango du Gizarte Segurantzaren inguruko gastu-prospekzioak egiteko. Zenbat eta handiagoa izan, lan-bizitza gero eta luzeagoa izatea planteatu daiteke, eta zenbat eta txikiagoa izan, orduan eta kostu sozial handiagoei aurre egin beharko zaie.

Azken datuen arabera badirudi Europan oro har EBI aldataririk gabe dagoela baina hegoaldeko zenbait herrialdetan, Espainian, Italian eta Portugalen, laburtzen ari dela.



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Antartikako izotz-maparen aldaketaren mapa

2010ean Europako Espazio Agentziak (ESA) Cryosat satelitea bidali zuen espaziora, Antartikako izotz-mailaren aldaketak neurtzeko. Apirilaren 24an aurkeztu zuten 2010-2011ko neguan izotz-geruzak izan duen bilakabidea.

<http://ttiki.com/37007> (Gaztelaniaz)

<http://ttiki.com/37008> (Frantsesez)

Txakurren eta katuen lepokoetako 60 produktu erretiratu dituzte

Txakurrek eta katuek arkakusoan aurkako lepokoak izaten dituzte. Berriki jakin izan dugu Frantzian lepokoetan erabiltzen ziren 60 produktu erretiratu dituztela, batez ere umeen osasunean sor ditzaketen arazoak direla eta.

<http://ttiki.com/37009> (Frantsesez)

Unibertso behargarria hobeto ulertzeko super-kalkulagailua

Segundoko 2.000 bilioi eragiketa egin dezakeen ordenagailuari esker, ezagutzen dugun unibertso zatiaren "mapa" egiteko aukera gehiago izango dugu. Lortuko diren datuen bolumena –lehen emaitzak maiatz amaierarako iragarri dituzte– 30 milioi DVDtan sartzen denaren baliokidea da.

<http://ttiki.com/37010> (Gaztelaniaz)